

**PASSION SIMPLE (PASIO HUTSA) • Frantzia – Belgika**

Danielle Arbid (zuzendaria, gidolaria)  
Laetitia Dosch, Sergei Polunin (aktoreak)  
David Thion (ekoizlea)

# Sexutik maitemintzera eta azkenik obsesiora garamatzan egokitzapena

## Obsessively waiting for a simple passion

*Passion simple* was programmed at Cannes but was cancelled because of the coronavirus. It was screened here yesterday and is competing in the Official Selection. The film, based on the novel of the same name by Annie Ernaux, tells the story of an obsessive romance between a French university lecturer and a Russian. The scriptwriter and director, Danielle Arbid, explained that passion enslaves you in some way, because there's something about it that you just don't grasp, it's a mystery. She also said that she saw Hélène as a woman who submits herself out of love: from a voluntary not a victim's viewpoint. She revealed that she had chosen actors who were comfortable with their own bodies to address the intimate scenes, and that's why she chose the famous dancer, Sergei Polunin. She said that she wasn't worried how the film might be misinterpreted as she loved challenges and would rather take risks that meet general approval. She also said that Annie Ernaux herself had seen *Passion simple* and when the author told her that she felt like she was completely in the film, she couldn't have wished for a nicer compliment.



Danielle Arbid (lehen ezkerretik hasita) eta filmeko ordezkariak posatu ederra egin zuten.

JORGE FUENBUENA

### SERGIO BASURKO

Jatorri libanoarreko Danielle Arbid zinemagileak Annie Ernaux idazlearen "Pasio hutsa" eleberriraren egokitzapena ekarri du Sail Ofizialera, nahiz eta hasiera batean Cannesen lehiatzeko hautatua zegoen. Pasio eta amodio istorioa da *Passion simple*, grinaren, antsiaren eta desiraren inguruko kontaketa. Bizitzaren zentzu eta helburu bakar bihurtzerainoko indarra duen pasioa. "Maitemintzen zarenean sentitzen duzun errusiar mendi emozionalari buruzko istorio bat kontatu nahi nuen", esan du zuzendariak.

Beti eta gauza guztien gainetik maitalearen zain dagoen emakumearen irudia gaitzesgarri samarra ez ote den galdetu zaio prentsaurrekoan: "Judizio moralak ez du zerikusirik horrekin, Annie Ernauxek bere liburua argitaratu zenean esan zuen bezala, eta horrek are gehiago erakarri ninduen; bere

burua feministatzat du. Ikuspuntu hori errespetatu nuen gidoia idazterakoan. Annie filmak ikusi du eta gustatu zaio ezzenatan erabat murgildu dela aitortu zidan. Nolanahi ere, oso gogoko ditut erronkak. Nahiago dut arriskatu onespene orokorra lortzea baino. Filma kritikatu izan daiteke, liburua lehen aldiz agertu zenean kritikatu izan zen bezalaxe. Ikusiko dugu. Baina ez diot inori azalduko nola saihestu maitasun suharraren arriskuak", irmo erantzun du Arbidek.

Eta gaineratzen du: "Hélène pertsonaia, nire ustez, setio-egoera gozo eta maltzur honekin txundituta dago. Inoiz halako egoera bat bizi izan baduzue ohartuko zineten dopamina hutsa dela, droga bat. Azken batean, maitasunagatik bere burua entregatzen duen emakumea da, bai; baina bere erabakia da. Horrela ikusten dut *Passion simple*-ren istorioa: ikuspuntu boluntariotik, ez biktimarenetik".



"lazko irailaz geroztik gizon baten zain egon naiz, haren deiaren eta bisitaren zain... Horretaz gain ez dut besterik egin.

Berari buruzko guztia oso preziatua zen niretzat, bere begiak, ahoa, zakila, haurtzaroko oroitzapenak, ahotsa..."

Annie Ernaux

Arnas hartu eta eszena intimoei nola heldu zien azaldu du: "Film sexual bat egin nahi nuen. Niretzat, gorputzak filmatzea aktoreak 'glamourizatze' modu bat da. Txundigarriak izan behar dute. Sexu eszenak ahalik eta zehatzen idazten ditut, aktoreek seatean zer espero dudakin dezaten. Beren gorputzekin eroso sentitzen diren aktoreak aukeratu nituen, gorpu-

tzen grazia, mugimendu eta keinuaren edertasuna bilatzen bainuen. Erabaki hauek filmaketa baino askoz lehenago hartzen dira, noski. Filmean, beren pasioaren bilakaerak beren gorputzen koreografiarena jarraitzen du".

Laetitia Dosch emakumezko aktore protagonistak adierazi duenez: "Asko gozatu nuen pertsonaia hau haragitzen. Hélène emakume distiratsua da, bere semea bakarrik hazten

duena, Sorbonan literatura irakasten duena, eta, hala ere, urte osoan zehar gizon horren esperoan dago. Ez dut hura epaitzen, egoera interesgarria iruditzen zait, zorabigarria delako. Moralaz haraindi, ez zuri ez beltz..."

Egia da, ezinezko maitasun batek utzitako zuloa beti da sakona eta hemen sakonagoa eta ilunagoa da oraindik, harreman guztia deusezteraino. Film ausarta eta interesgarria da.

CON LA MEJOR TECNOLOGÍA  
LLEVAMOS TUS SUEÑOS A LA GRAN PANTALLA

KELONIK

ANTAVIANA  
FILMS  
VFX & POSTPRODUCTION